

Euskal ekonomiaren bilakaera 2017IIH

2017ko azaroaren 30a

1

2

3

4

Laburpena

Euskal ekonomia
BPGd
Barne eskaria
Kanpo sektorea
Lan-merkatua
Inflazioa
Sektore publikoa
Finantza-sektorea
Adierazleak

Ingurunea

Aurreikuspenak

1. Euskal ekonomia 2017IIIH: bide egokian

17IIIHn, euskal ekonomiaren **BPGd-a % 3,0** (u/u) hazi da, aurrerapenean aurreikusitakoa baino hamarren bat gehiago. Enplegua, aldiz, % 2,1 hazi da, eta produktitatea % 0,9 hobetu du. Joera horri esker, leku nabarmena dauka Europako testuinguruan, eta espainiar ekonomiaren dinamismoaren pare dago. Urte honetarako aurreikuspen ofizialak % 2,7 eta % 2,3koak dira; hala ere, litekeena da 2017an behin betiko hazkunde handiagoa izatea.

BPGd-aren **hazkunde-tasa** berriro hain handia izatearen atzean, % 3koa, **barne-eskariaren intentsitate handiagoa** dago, **Kapitalaren Eratze Gordinean (% 3,9)** eta **Kontsumo Pribatuan (% 3)** oinarritua. Bi horiek kanpo-sektorearen ekarpen urriagoa orekatzen dute (-0,1pp egin du atzera, iazko hiruhileko berean eman zen 0,3pp-ko ekarpen positiboaren aldean).

EAeko lan-okupazioaren bilakaera positiboa da, eta **% 2,1** hazi da, **937.000 langileen** langa gainditzeraino, hau da, iaz baino 19.688 langile gehiago; horietako gehienak, 15.167, Zerbitzuen sektorekoak dira, eta 3.365 Industriakoak, produktitate handiena duen sektorea. **Irailean, GSaren afiliazioak % 2,7 egin zuen gora, lan-merkatuaren susperraldiaren ondorioz.** **PRAren** arabera, 17IIIHn, **langabezia-tasa % 11,5ekoa** izan da, guztira 118.500 langabeturekin.



Urrian, **prezioen indizea % 1,6ko** hazkunde-tasara igo zen, intentsitatea apalduz, igoera-erritmoetan apaltze-bide bat erakusten duen azpiko inflazio batekin, % 0,9koa. Sektoreei begiratuta, elikagaien, energiaren, etxebizitzent, aisialdia eta kulturaren eta irakaskuntzaren prezioak hazi direla ikusiko dugu, eta komunikazioen eta etxeeko horniduren prezioak, berriz, jaitsi.

EAEn urrira arte metatutako **diru-bilketaren** datuak positiboak dira: 11.651 M€ bildu dira guztira, eta +% 10,6,7 (u/u) hazi ondoren, aurreko hiruhilekoetan hasitako bideari jarraitu dio.

Diru-sarrera motari begiratuta, diru-bilketaren hazkunde homogeneoa dela ikus daiteke hala zuzeneko zergetan nola zeharkakoetan, % 10,6 eta % 10,8 hazi baitira, hurrenez hurren; bildutako saldoak 5.384 M€ eta 5.062 M€ izan dira kasu bakoitzean. BEZA da ekarpen handiena egiten duena (4.000 M€), eta ondoren PFEZ daukagu (3.800 M€). EAeko **zor-mailak gora** egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, **% 15,3raino (17IIH: % 15)**.

2. Dinamismoak ez du etenik


EAeko BPGd-aren bariazio-tasa (%)



17IIIHn, euskal ekonomiaren **BPGd-a % 3,0** hazi da (u/u), aurrerapenean aurreikusitako baino hamarren bat gehiago. Enplegua, bestalde, % 2,1 hazi da, eta horrek % 0,9an hobetu du produktibitatea. Joera horri esker, oso goian kokatuta dago europar testuinguruan, Espainiako ekonomian ematen ari den dinamismo handiarekin bat etorriz.

Urte honetarako eta datorrenerako aurreikuspenak % 2,7 eta % 2,3an daude, hurrenez hurren, baina litekeena da 2017an aurreikuspen hori gainditzea.


2. EAE: Kontsumoan eta inbertsioan oinarritutako hazkunde handia



Iturria: Eustat, gure datuak

17IIIHn BPGd-aren **hazkunde-tasa** hain handia izatearen atzean, % 3koa, **barne-eskariaren intentsitate handiagoa** dago, **Kapitalaren Eratze Gordinean (% 3,9)** eta **Kontsumo Pribatuan (% 3)** oinarritua. Bi horiek kanpo-sektorearen ekarpen urriagoa orekatzen dute (-0,1pp egin du atzera, iazko hiruhileko berean eman zen 0,3pp-ko ekarpen positiboaren aldean).



2. Zerbitzuek eta Industriak apur bat atzera egin dute, eta Eraikuntza suspetu egin da



Iturria: Eustat, gure datuak

Eskaintzaren ikuspuntutik, EAEko BPGd-an **hazkunde-intentsitate apalagoa** ikus daiteke **Zerbitzuetan (% 3)** eta **Industrian (% 2,7)**, eta **hazkunde handiagoa**, aldiz, **Eraikuntzan (% 2,5)**, aurreko urteko epe berean lortutako emaitzekin alderatuta.



2. Inbertsioak eta kontsumoak eskaria bultzatu dute



PIB Trimestral (demanda)	2016			2017		
	II	III	IV	I	II	III
GASTO EN CONSUMO FINAL	3,2	2,7	2,9	2,9	2,6	2,9
-Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH	3,4	3,1	2,9	3,0	3,0	3,0
-Gasto en consumo final de las AAPP	2,7	0,8	3,0	2,6	1,2	2,7
FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL	3,7	3,1	3,2	3,0	3,2	3,9
-Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo	7,0	6,1	6,6	4,2	5,4	4,5
-Resto de Formación Bruta de Capital	2,2	1,6	1,6	2,2	1,9	3,5
DEMANDA INTERNA	3,3	2,7	3,0	2,9	2,7	3,1
EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	3,0	1,6	0,3	1,5	1,9	3,7
IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	3,2	1,3	0,4	1,9	1,8	3,9
PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado	3,2	3,0	2,9	2,8	2,9	3,0

Barne-eskaria % 3,1era heldu da, Kapitalaren Eratze Gordinaren susperraldiak eta Kontsumo Pribatuaren egonkortasunak lagunduta. Horri, gainera, **Kontsumo Publiko handiagoa gehitu behar zaio.** Kanpo-sektorearen kasuan, esportazioen dinamismo handiagoa importazioen hazkunde handiagoarekin orekatu da, eta **uzkurtze-efektu arin bat gertatu da.**





2. Kanpo Sektorea: importazioen dinamismo handiagoa



Iturria: Eustat

Esportazioak (% 3,7) Importazioen % 3,9tik behera igo dira. Kanpo-sektorearen eragin konbinatua apur bat negatiboa da (-0,1pp), bigarren hiruhilekoko hazkundeari ekarpen positiboa egin ondoren.

2. Intensitatea Zerbitzuetan eta Industrian




Iturria: Eustat


Sektoreei begiratuta, **17.III.Hn.**, **Industria suspertu** dela ikus daiteke (% 2,7), eta **Eraikuntzaren** dinamismo handiagoaren pare jarri dela (% 2,5); **Zerbitzuek**, aldiz, haien hazkundearen intentsitateari eutsio diote (% 3,1). Eta hori guztia **enpleguaren** (% 2,1) eta **produktibitatearen** (% 0,9) hobekuntzakin.

2. Zerbitzuen ekonomia bat, BPGd-aren protagonista

Estructura y Variación PIB IIT17 (%)



Aportación al PIB IIT17 (pp)




Iturria: Eustat, gure datuak

EAeko BPGd-aren sektore produktiboaren ekarpenei dagokienez, **Zerbitzuen** protagonismoa da oraindik nagusi, BPGd-aren % 62,2arekin eta hazkunde orokorrari egiten dioten **2pp-ko ekarpenarekin**; ondoren, **Industria eta energiarene** sektorea daukagu, % 21,5eko pisu erlatiboarekin eta **0,5pp-ko ekarpenarekin**; **Eraikuntza**, berriz, BPGd-aren % 5,2arekin eta **0,1pp-ko ekarpenarekin** daukagu. Aurreko hiruhilekoan eman zen hurrenkera mantentzen da. BPGd osoa azaltzeko, produktuen gaineko zergen ekarpenea gehitu beharko litzateke.


2. Lan-merkatua suspetze-bidean

17IIIHn baino 3.036 langile gehiago eta
duela urtebete baino 19.688 langile gehiago

Estructura empleo y PIB 3T17



Productividad por sectores 3T17




Iturria: Kontu Ekonomikoak. Eustat.

17IIIHko Kontu Ekonomikoak aintzat hartuta, **EAeko lan-okupazioak** bilakaera positiboa izan du. **% 2,1** hazi da eta **937.000 langileren** langa gainditu du. Aurreko urtearekin alderatuta, **19.688** langile gehiago dago, eta horietako gehienak, 15.167, Zerbitzuen sektorekoak dira. 3.365 Industriakoak dira, produktitate gehien daukan sektorea.


Irailean, **GSaren afiliazioak % 2,7 egin zuen gora, lan-merkatuan gertatutako susperraldiaren ondorioz. PRArean** arabera, 17IIIHn, **langabezia-tasa % 11,5ekoa** izan da, guztira 118.500 langabturekin.

2. Intentsitate apalagoa prezioetan

Inflazioa sektoreka



EAE: Inflazioaren bilakaera




Iturria: Ikerbide

Urrian, prezioen indizea % 1,6ko hazkunde-tasara igo zen, intentsitatea apalduz, igoera-erritmoetan apaltze-bide bat erakusten duen **azpiko inflazio** batekin, % 0,9koa. Sektoreei begiratuta eta aurreko urteko hil berarekin alderatuta, elikaduran, energian, etxebizitzan, aisialdian eta kulturan eta irakaskuntzan eman dira igoerak. Bestalde, komunikazioetan eta etxeeko gauzetan uzkurtzea eman da.

2. Sektore Publikoa: orekaren bila





CAE: Capacidad (+) o Necesidad (-) de Financiación



Urrira arteko diru-bilketa metatuak **bilakaera oso positiboa** izan du EAEn, eta saldoa 11.651 M€-koa izan da, +% 10,6,7 (u/u) hazi ondoren. Aurreko hiruhilekoetan hasitako bide onari jarraipena eman dio horrela.

Diru-bilketaren hazkundea homogeneoa dela ikus daiteke hala zuzeneko zergetan nola zeharkakoetan, % 10,6 eta % 10,8 hazi baitira, hurrenez hurren; bildutako saldoak 5.384 M€ eta 5.062 M€ izan dira, hurrenez hurren. BEZA da ekarpen handiena egiten duena (4.000 M€), eta ondoren PFEZ daukagu (3.800 M€). EAEko **zor-mailak** gora egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, **% 15,3**raino (17IIH: % 15).

2. Finantza-sektorea: aurrerapauso apalak kredituan eta gordailu pribuetan




Sektore pribatarentzako kredituaren hazkundea **positiboa** da, eta % 1,3an kokatu da, aurreko hiruhilekoan baino pixka bat beherago **EAEn**. Kontrako aldean, merkatu osoaren uzkurtzea dauagu, **-% 3** jaitsi dena.

Sektore pribatuaren gordailuak, aldiz, bi esparruetan hazi dira, baina **EAEn (% 1,7)** Esapiniako merkatuan baino intentsitate apalagoarekin (**% 2,97**).



2. Desapalankatzea ez da eten

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2017ko ekaina



Sektore pribatuaren gordailuak 75.041 M€-koak dira, eta Kreditu pribatuak, aldiz, 64.085 M€-koak ekainean; hortaz, 10.956 M€-ko aldea dago. Beste ikuspegi batetik, Kreditu pribatua EAEn dauden gordailu pribatuen % 85 da (% 102,5 Spainian), eta bi kasuetan, krisiaren aurrelik hasitako despalankatze-bideari eusten dio.


2. Etxebizitzen hipoteka: aurreko intentsitatea apaldu da



Iturria: INE

Irailean, etxebizitzen hipoteka-merkatuaren dinamismoa apaldu egin da aurreko hiletako aurrerapausoekin alderatuta. Gauzak horrela, etxebizitzen hipoteken zenbatekoaren hazkundea **Espainiako % 19,7aren eta EAEko % 2,1aren** artean dago. Eragiketa kopurua, aldiz, % 9,2 hazi da, eta % 2,7 jaitsi da erreferentzia-esparruetako bakoitzean.

2. Berankortasuna beherantz, hobekuntza oraindik aurrera




2017ko iraileko EFCen OSR berankortasun-tasa hobetzen ari da oraindik, eta % 8,33ra erori da, hau da, urte artean 0,89pp egin du aurrera. Finantza-sistemaren OSR kredituaren estaldura-tasari dagokionez, urte artean aurrera egin duela ikus daiteke (+0,82pp), % 60raino iritsita.

2. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...


% Var.

MENSUALES	dic-16	ene-17	feb-17	mar-17	abr-17	may-17	jun-17	jul-17	ago-17	sep-17
IPI (Eustat)	4,4	1,1	1,3	3,1	2,6	3,2	1,1	0,8	5,1	3,6
Indice Comercio Minorista (INE)	1,6	2,6	0,3	7,6	-3,3	4,4	3,8	1,8	3,6	
Consumo de gasolina , gasóleo y fuelóleo™ (Cores)	4,2	15,0	0,5	17,9	-8,2	-2,8	2,0	1,7	6,4	
Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3)	9,0	1,8	0,6	2,8	-8,5	5,9	0,5	-5,1	11,9	0,0
Hipotecas. Número (INE)	14,5	24,5	-10,1	39,7	-26,9	3,2	-5,4	25,1	20,0	
Hipotecas. Importe (INE)	-4,1	15,7	-15,0	33,9	-28,8	7,3	-7,1	37,1	28,4	
Compraventa viviendas	5,3	13,6	-16,1	32,7	-10,7	6,8	8,9	2,1	4,0	49,6
Recaudación DDFP: Total impuestos (GV)	2,7	7,5	10,3	10,5	10,9	10,9	9,7	15,6	13,8	10,1


IPI




Venta grandes Superficies




Comercio minorista



Consumo gasolina, gasóleo y fuelóleo



3. Aurreikuspenak: moderazio mailakatua



Iturria: INE, Eustat eta gure datuak

Euskal ekonomiak hazkunde-intentsitate moderatuari eutsi dio **2017ko hirugarren hiruhilekoan**, eta **BPGdaren tasa % 3,0an** kokatu da, aurreko hiruhilekoan bezala. 2017an % 2,7aren inguruan ixtea aurreikusita dago, eta 2018an % 2,3ra jaistea, erreferentziatzko inguruko esparruarekiko orekan.

4. Munduko ekonomia indartsu ari da

NDFren aurreikuspenak 2017ko urrian

Panorama de las proyecciones de Perspectivas de la economía


	oct-17	Proyecciones	
	2016	2017	2018
Producto Mundial	3,2	3,6	3,7
Economías avanzadas	1,7	2,2	2,0
Estados Unidos	1,5	2,2	2,3
Zona del euro	1,8	2,1	1,9
Alemania	1,9	2,0	1,8
Francia	1,2	1,6	1,8
Italia	0,9	1,5	1,1
España	3,2	3,1	2,5
Japón	1,0	1,5	0,7
Reino Unido	1,8	1,7	1,5
Economías emergentes y en desarrollo	4,3	4,6	4,9
Volumen del comercio mundial (b)	2,4	4,2	4,0
Petróleo	-15,7	17,4	-0,2
Precios al consumidor			
Avanzadas	0,8	1,7	1,7
<i>Emergentes y en desarrollo</i>	4,3	4,2	4,4

NDFren aurreikuspenak 2017ko urrian

NDFren urriko aurreikuspenen arabera, munduko ekonomiak hazkunde-tasa indartsua dauka, eta 2016an abiarazitako susperraldiaren bidean aurrera ari da; ekitaldi honetan, % 3,6an kokatuko da, zenbait herrialdetan hazkunde ahulagoak dauden arren.

Ekonomia aurreratuek perspektiba hobeak dituzte, batez ere AEBak eta Eurogunea, eta aurreko ekitaldian baino hazkunde hobeak espero dituzte 2017an; garapen bidean dauden ekonomiek eta ekonomia gorakorrek ere aurrera egin dute, % 4,6raino. Erregaien esportatzaileak, berriz, kaltetuta egon dira, lehengaiak sortutako diru-sarreren jaitsierara denbora luzez egokitzen beharraren ondorioz.

garapen bidean dauden ekonomiek eta



4. Hazkunde-erritmo bizia Eurogunean

- Munduko ekonomiaren bidea, oro har, **suspertze-bide bat** da, inflazio-maila moderatuekin.
- Testuingurua, beraz, azken urteotako onena da, eta identifikatuta zeuden arriskuetako batzuk ez dira gauzatu, hala nola burbuila txinatarraren eztanda edo AEBen hazkundearren amaiera.
- **AEB:** BPGd-a % 3 hazi da 17IIIHn, eta langabezia-tasa % 4,1era jaitsi da (urteko minimoa), enplegua eta konfiantza pizten ari diren testuinguru batean.

Zona Euro. Previsiones de crecimiento económico comparado 2016-2018P

Crecimiento PIB (previsión; a/a)

	Fecha previsión	2016P	2017P	2018P
Previsiones BCE (punto medio)	sep-17	1,8	2,2	1,8
OCDE	jun-17	1,7	1,8	1,8
Comisión UE	may-17	1,8	1,7	1,8
FMI	abr-17	1,7	1,7	1,6
Consensus	sep-17	-	2,1	1,8

Consensus Economics, ECB, EU Commission, IMF, OECD

Fuente Citivelocity. September 2017


Euroguneko ekonomia

- Euroguneak hazkunde bizia izan du 17IIIHn (% 2,5), hainbat herrialderi eragin diona.
- Konfiantzaren adierazleek gorako bideari eutsi diote, eta langabezia-tasak minimoetan daude krisi garaitik, % 8,9aren inguruan. Prezioen indizea apaldu egin da urrian, % 1,4raino.
- Merkatuetan eragina izan du EBZk hileko aktiboen erosketa bolumena murriztuko duela iragarri izanak, 30.000 M€-raino 2018tik aurrera.
- Banku zentralen hedapen kuantitatiboaren amaierara heldu garen sentsazioa dago, eta horrek hegazkortasun handiagoa ekarriko lieke merkatuei. Hori bai, Ipar Korearekin dauden tentsio handiek, Txina eta AEBren arteko arazo komertzialek eta zorraren sabaiaren inguruan Washingtonen dauden eztabaidek politika horiek emateko aukera murrizten dituzte.

4. Espania: hazkunde nabarmena


BPGd-aren hazkundea Spainian

BPGd: % 3,2 u/u



EPA. Langabezia-tasa %


Langabezia-tasa: % 16,4 (u/u) 2017IIIHn



INEk BPGd-aren % 3,1eko hazkundea aurreratu du Espainarentzat 17IIIHn, aurreko hiruhilekoan bezala; testuinguru europarrean daukan toki nabarmena sendotuko luke horrela. Hala ere, oraindik ez da krisiaren aurreko mailetara iritsi.

Aurreikuspenen arabera, hazkunde honek urteko azken zatian ere iraungo du, eta pixkanaka jaisten joango da 2018an. Urte horretarako, FUNCASek % 2,6ko hazkundea iragarri du, % 2,4 eta % 3aren arteko bariazio-tarte batekin, kontsumo pribatua eta kanpoko bultzada zertxobait apaldu ondoren, ondasunen esportazioen dinamismo txikiago baten eta turismoaren moderazioaren ondorioz. Aitzitik, etxebizitzen inbertsioak bultzada indartsua ematea espero da. Kataluniaren bilakaera da zalantzen arrazoi nagusia, eta BdEk hazkunde apalagoko eragina aurreikusi du, 0,3pp eta 2,5 pp artekoa.

4. Aurreikuspenak. Spainia, bidea garbi



2018ari begira, BPGd-aren adostasunaren aurreikuspena % 2,6koa da (aurrekoan baino hamarren bat txikiagoa), hein batean, Kataluniako fenomenoarengatik eta gertakari hain ezohiko baten eragina kalkulatzeko zailtasunengatik.

Aurtengo prezioen indizea % 2 ingurukoa izango da, eta 2018an % 1,5era jaitsiko da, % 1,2ko eta % 1,4ko azpiko inflazioarekin, hurrenez hurren.

2017rako aurreikusitako enpleguaren sorrera % 2,8koa izango da, eta % 2,2koa 2018an; horrek langabezia murriztea eragingo du, % 17,1eraino 2017an, eta % 15,3raino 2018an.

2017rako defizit publikoa BPGd-aren % 3,1ekoa da; hortaz, defizit helburua beteko litzateke. 2018an, aldiz, % 2,4koa izango litzateke, ezarritako gehieneko muga baino bi hamarren gorago.

Litekeena da 2018an Spainia gehiegizko defizitaren protokolotik ateratzea. Hala ere, desorekak desagertu ez direnez, arretaz zaindu beharko dira herri-administrazioen diru-sarrera eta gastuen bilakaera.

4. Aurreikuspenen panela. Spainia

nov-17

España	PIB		IPC		PARO (EPA)	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Panel de Previsiones						
AFI	3,1	2,7	1,9	1,4	17,2	15,3
BBVA	3,1	2,5	1,9	1,4	17,1	15,5
Bankia	3,3	3,0	1,9	1,6	17,1	14,9
Caixabank	3,1	2,4	1,9	1,4	17,2	15,8
CEEM	3,1	2,5	2,0	1,8	17,1	15,0
CEPREDE	3,1	2,5	1,8	1,7	17,1	15,6
CEOE	3,0	2,5	2,0	1,1	17,1	15,0
Funcas	3,1	2,6	1,9	1,2	17,0	15,1
ICAE-UCM	3,1	2,5	1,9	1,3	17,2	15,5
IEE	3,2	2,6	2,1	1,8	17,1	14,6
Intermoney	3,1	2,5	1,9	1,6	17,2	15,8
CONSENSO (media)	3,1	2,6	2,0	1,5	17,1	15,3
Máximo	3,3	3,0	2,1	1,8	17,6	15,8
Mínimo	3,0	2,4	1,8	1,1	17,0	14,6
PRO MEMORIA						
Gobierno (octubre 17)	3,1	2,3	-	-	17,2	15,5
BdE (septiembre 17)	3,1	2,5	1,9	1,3	17,1	15,1
CE (noviembre 17)	3,1	2,5	2,0	1,4	17,4	15,6
FMI (octubre 17)	3,1	2,5	2,0	1,5	17,1	15,6
OCDE (junio 17)	2,8	2,4	2,3	1,4	17,5	16,0

Fuente: funcas

Euskal ekonomiaren bilakaera 2017IIH

2017ko azaroaren 30a